

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

NEKAZARITZA SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 30/2023 Foru Dekretua, ekainaren 13koa. Onestea ur baliabideak kudeatzeko laguntzen oinarri arautzaileak eta 2023ko deialdia

Ureztatzeak eragin handia du Arabako Lurralde Historikoko ustiategietan; izan ere, zereal laboreak, olio-landareak, belardiak eta larreak izan ezik, gainerako laboreek ureztatze ura behar dute. Horien artean, erremolatxa, patata, lekadunak, barazkiak eta mahastiak nabarmentzen dira.

Azken hamarkadetan, Arabako Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzak, Estatuaren Administrazio Orokorrek eta Europar Batasunak uraren kudeaketa iraunkor eta eraginkorra bultzatu dute ureztaketa tradizioaletan, haren eskuragarritasuna eta kalitatea bermatzean, ureztaketak modernizatzean eta ikerketaren eta teknologia berriak sartzearan sustapenean oinarrituta.

Ureztatze-instalazioak mantentzeko eta modernizatzeke, inbertsio etengabea egin behar da, oro har ureztatzaile elkartearen ahalmen ekonomikoa gainditzen duena, eta haien jarraipena arriskutan jartzen duena.

2015-2020 aldirako LGP 2022ra arte zabaldua amaitu ondoren, hura garatzeko ezarritako arau esparrua Batzordearen abenduaren 14ko 2472/2022 (EB) Erregelamenduan kokatzen da. Erregelamendu horren bidez, nekazaritza eta basogintza sektoreetan eta landa eremuetan barne merkatuarekin bateragarriak diren zenbait laguntza kategoria deklaritzen dira, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikulua aplikatuz. Zehazkiago, 14. artikuluan xedatzen da nola arautuko diren «nekazaritza ekoizpen primarioarekin lotutako nekazaritza ustiategietan inbertitzeko laguntzak». Horren ondorioz, beharrezkoa da laguntzak arautzen dituzten oinarri berriak argitaratzea.

Foru dekretu hau izapidetzeko, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak jasotako arautze onaren printzipioei jarraitu zaie, zeinak Arabako Foru Aldundiaren xedapen orokorrak egiteko prozedura onesten dituen otsailaren 28ko 6/2023 Foru Dekretuaren 3. artikuluan ere jasota baitaude. Hala, azaldutako aurrekarietan behar bezala justifikatu da erregulazio berri baten beharra, eta, gainera, araugintza jarduera proportzionatua da; izan ere, lortu nahi den helburua lortzeko ezinbesteko gutxienekora mugatzen da, hau da, ur baliabideak kudeatzeko laguntzen oinarri arautzaileak eguneratzera. Egiteko, kontuan hartu dira Arabako Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako V. Foru Planaren (2022-2026) inspirazio iturri diren emakumeen eta gizonen arteko berdintasun printzipioak, bai eta Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistatik gabeko bizitzetarako legearen testu bategina onesten duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintza Dekretuaren edukia eta Emakume Nekazarien Estatutuaren urriaren 15eko 8/2015 Legea ere. Halaber, kontuan hartu dira Arabako Foru Aldundiko Berdintasun Zerbitzuak horri buruz egindako txostenean jasotako oharra. Halaber, segurtasun juridikoaren printzipioa bermatzen da, nahikoa justifikatuta gelditzen delako ordenamendu juridikoan sartzeko dela eta hura ematen duen organoa gaituta dagoela. Gardentasun printzipioari dagokionez, ez da urratu, entzunaldiko eta jendaurreko izapideak bete direlako lege ezarritako epeetan. Eraginkortasun printzipioari dagokionez, planteaturiko arauketak, daukan izaeratik, ez du eragiten administrazio zama osagarrikerik eta beharrezkoak ez direnik herritarrentzat oro har, ezta baliabide publiko gehiago kontsumitzea ere. Sinpletasunaren eta ulergarritasunaren printzipioei dagokienez, proposatutako testua modu egituratuan eta hizkera argia eta ulergarria erabiliz idatzi da.

Aginduzko txostenak ikusi dira, eta Nekazaritza Saileko foru diputatuak proposaturik eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Nekazaritzako ur-baliabideak kudeatzeko laguntzen oinarri arautzaileak onestea, foru dekretu honen eranskinaren arabera.

Bigarrena. Onestea, 2023. urterako, dirulaguntza horietarako deialdia, honako ezaugarri hauekin:

– Eskabideak aurkezteko lekua eta epea:

Laguntza eskaerak, 39/2015 Legearen 14.2 artikulua betez, telematikoki aurkeztuko dira Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bitartez.

AFAren egoitza elektronikoaren zerbitzuak erabiltzeko, nahitaezkoa da modu telematikoan identifikatzea, ziurtagiri digital baten edo BAKO sistemaren bidez: <https://egoitza.araba.eus/eu/egoitza-elektronikoa/ezagutu-egoitza/nola-sartu>.

Eskaerak eskatzailearen ordezkari batek ere aurkeztu ahal izango ditu, baldin eta aurrez izapide hori gauzatzeko beharrezko baimen maila ezarri bada egoitza elektronikoan: <https://web.araba.eus/eu/egoitza-elektronikoa/baimenak>.

Aurkezteko epea hilabetekoa izango da, foru dekretu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita. Epearen azken eguna baliogabea bada, hurrengo egun baliodunean amaituko da.

Ureztatzaileen elkarrekin gehienez ere bi jardueratarako aurkeztu ahal izango dute laguntza eskaera, eta ulertuko da lehenbizi eskatutako jarduerak duela lehentasuna.

– Kreditu erreserba: 1.000.000 euro, Arabako Foru Aldundiaren 2023rako gastu aurrekontuko "Ureztaketa modernizatzeko dirulaguntza, 2023ko deialdia" izeneko 40101. G/452400/78100401 partidaren kargura, honela banatuta urtez urte:

– 500.000,00 euro 2023an.

– 500.000,00 euro 2024an.

Esandako kreditua zenbateko gehigarriekin handitu ahal izango da, urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauaren 21. artikuluan ezarritako mugen barruan, hasieran erreserbatutako kredituaren ehuneko 100era arte, baita aurrekontu partidan edozein arrazoiengatik gerta litekeen kreditu gehikuntzaren bidez ere.

– Haztatze koefizienteak, oinarri arautzaileen 10. artikuluan ezarritako aukeratze-irizpideei aplikatu ahal zaizkienak.

Deialdi honetan, ondorengo taulako haztapan koefizienteak aplikatuko dira, guztizko puntuazioa lortzeko.

IRIZPIDEA	HAZTATZE KOFIZIENTEA
Ura aurrezteka edota ur erabileraren eraginkortasuna hobetzea	2
Azalera	1
Modernizatzearen/hobetzearen maila ureztatzaile elkartean	1
Ingurumeneko ekarpena – helburuak	1

Hirugarrena. Deialdia ebatzi ondoren, 11/2016 Foru Araua aplikatuz, aurrekontu partidan kreditu gehikuntzarik izan bada emandako dirulaguntzei uko egin, deuseztatu edo zenbateko txikiagoak ordaindu direlako eta zenbait eskabideri erantzun ez bazaie aurrekontuko kreditua nahikoa izan ez delako, Gobernu Kontseiluaren erabakiz kreditu hori eskabide horietarako esleitu ahal izango da, oinarri arautzaileetan ezarritako lehentasun irizpideei jarraikiz.

Laugarrena. Nekazaritza Saileko foru diputatuari ahalmena ematea foru dekretu hau garatu eta aplikatzeko beharrezkoak diren xedapenak eman ditzan.

Xedapen indargabetzailea. Foru dekretu honen aurka doazen xedapen guztiak indargabetzea, maila berekoak zein baxuagokoak, eta bereziki uztailearen 12ko 51/2016 Foru Dekretua.

Azken xedapena. Foru dekretu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko ekainaren 13a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Nekazaritza Saileko foru diputatua

EDUARDO AGUINACO LÓPEZ DE SUSO

Nekazaritza zuzendaria

M^ª ASUNCIÓN QUINTANA URIARTE



ERANSKINA

1. artikulua. Xedea

Laguntza hauen helburua Arabako ureztaketak hobetzea eta modernizatzea da, ureztatzaileen elkarteetako kide diren erabiltzaileek uraz egiten duten erabileraren kudeaketa eta plangintza optimizatuta haiek sendotzea sustatuz, eta, aldi berean, nekazarien lan baldintzak, segurtasuna eta bizikaltatea hobetzea lortuz, haien ongizate-maila handituz eta beraien nekazaritza-ustiategien errentagarritasun handiagoa ahalbideratuz, ekoizpen dibertsifikazioa eta haien lehiakortasuna indartuz nekazaritza-azpiegitura horien garapen eta hobekuntzaren bidez.

2. artikulua. Definizioak

Foru dekretu honi, Europako araudian ezarritako definizioez gainera, ondoko definizio hauek ere aplikagarriak izango zaizkio.

2.1 Jarduna: halakotzat hartuko da proposatutako hobekuntza erdiesteko egiten diren inbertsioen multzoa.

2.2 Uraren aurrezpen potentziala: uraren eraginkortasunean lortzen den irabazia. Hori jatorrizko azpiegituraren eta proiektatutako azpiegituraren parametro teknikoan arabera zenbatetsiko da, eta ehunekotan (%) adieraziko da, era honetan: jarduketa egin aurretik azpiegiturak zituen galeren ehunekoaren eta ondoren azpiegiturak izandako galeren ehunekoaren arteko aldea.

2.3 Uraren murrizketa eraginkorra: uraren kontsumoan zer murrizketa izan den egiaz.

3. artikulua. Onuradunak.

Foru dekretu honetan ezarritako laguntzen onuradun izango dira diruz lagundutako jarduketak egiten dituzten ureztatzaile elkarteak edo diruz lagundutako jarduketa horien titular moduan azken hartzaile direnak.

4. artikulua. Diruz lagundutako jardunek aukeratuak izateko bete behar dituzten baldintza orokorrak

Diruz lagundu ahal izateko, jardunek honako baldintza orokor hauek bete beharko dituzte:

4.1 Arabako Lurralde Historikoan kokatuta dauden ureztapen azpiegiturretan gauzatu behar dira. Autonomia-erkidego batean baino gehiagotan jarduten duten ureztatzaile elkarteek kasuan, Araban dauden ekoizpen unitateei egotzi ahal zaizen zatian aukeratu ahal izango dira jardunak.

4.2 Honako alderdi hauek bete behar dira:

- 4.2.1 Koherentzia izan behar dute planifikazio hidrológicoarekin eta Uraren Esparru Zuzentarauarekin.
- 4.2.2 Bateragarriak izan behar dute ingurumenarekin; horri begira, jardun proiektuak, kontuan harturik zer tipologiakoa den eta nola erasaten dion, buruturik izan beharko du aplikatzekoa zaion ingurumen prozedura. Ingurumen inpaktuaren adierazpena, txostena edo ebazpena eduki behar da, indarrean dagoen legeriak eskatzen duenaren arabera, eta egiaztatatu behar da ez duela ingurumen inpaktu nabarmenik eragingo, bereziki Natura



2000 Sarean duen eraginaren aldetik, eta, hala badagokio, txostenetatik edo adierazpenetatik ondorioztatzen diren neurriak kontuan hartu eta bete beharko dira.

- 4.2.3 Uraren erabilera neurtzeko sistema bat eduki behar da, edo sistema hori inbertsioaren parte bezala jasota egon behar da.
- 4.2.4 Beste ureztatzaile elkarte batzuekin lankidetzan aritzea inolako diru etekin eta ordainik gabe, emandako zerbitzuak sor ditzakeen gastuak izan ezik, baldin eta bakoitzak bere ureztaketa beharrak asetuta baditu eta kalterik ez badio sortzen lagatzaileari.

5. artikulua. Berariazko baldintzak.

5.1 Beharrezkotzat jotzen den kasuetan, ezinbestekoa izango da Arabako Foru Aldundiak eta obren onuradun eta azken hartzaile izango den ureztatzaile elkarteak hitzarmen bat izenpetzea, bakoitzari dagokion ekarpena eta proiektuari buruzko beste alderdi batzuk arautzeko. Kasu horretan, Aldundiak kontratatuko ditu obrak.

5.2 Aldundiak kontratazio prozedurari ekin baino lehen izenpetuko da hitzarmen hori. Ureztatzaile elkarteak, hura izenpetzeko, finantza erakunde baten ziurtagiria aurkeztu beharko du, honako hauek jasotzen dituenak:

- Ureztatzaile elkarte onuradunak eskatzen duen kredituaren zenbateko erabilgarria, guztira.
- Finantza-erakundeak Arabako Foru Aldundiari ordaindu behar diola, hark bidalitako jakinarazpena jaso eta hamar eguneko epean, Arabako Foru Aldundiko teknikariek, obra-zuzendariak eta enpresa adjudikaziodunak egindako eta sinatutako obra-ziurtagiri bakoitzaren onuradun den ureztatzaile elkarteak eman beharreko zatia.
- Finantza erakundeak legezko interesak ordaindu behar dituela, baldin eta ureztatzaile elkarte onuradunak finantzatu behar duen ziurtagirien zatia ordaintzeko epea lehenago ezarritako aldiaren dobleaz gainditzen bada.

Era berean, hitzarmen horretan, honako alderdi hauek arautu eta ezarriko dira:

- Gauzatze aurrekontuaren eta finantzatzen diren gainerako jarduketan zenbatekoa, bai eta finantzaketa publiko eta pribatuaren ehunekoak ere.
- Dagokion konfederazio hidrografikoaren baimenak ematearen eta ingurumen-izapidetzearen egoera, hala badagokio.
- Erabili daitezkeen lurak eta lizentziak.
- Kontratazio prozedura eta kontratista adjudikaziodunari ordaintzeko modua.
- Hitzarmenaren Jarraipen Batzordea.
- Hitzarmenaren eta obrak egitearen ondorioz ureztatzaile elkarte onuradunari eskatu ahal zaizkion erantzukizunak.
- Obren titulartasunarekin zerikusia duten alderdiak.
- Proiektua behar bezala gauzatzeko komenigarri jotzen den beste edozein alderdi.

5.3 Nekazaritza Sailak ureztatzaile elkarte bati laguntza emateko baldintza gisa eskatu ahal izango dio, interes orokorrak hala agintzen duenean, beste ureztatzaile elkarte batean sar dadila edo elkarte orokor bat era dezala. Era berean, dirulaguntza emateko baldintza bezala ezar dezake erabiltzaileen batzorde zentral bat eratzea beste erkidego batekin edo batzuekin, bere eskubideak eta interesak hirugarrenen



aurrean babesteko eta bere instalazioen eta aprobetxamenduen erabilera koordinatua antolatzeko eta zaintzeko.

5.4 Ureztatzaileen elkarteek euren esku izan beharko dituzte hodiatarako eta atxikitako obretarako (kutxetak, banatzaileak eta abar) behin betiko okupatu behar diren lurak, bai eta aldi baterako okupaziorako baimenak eta zortasunak ere.

5.5 Artikulu honetan araututako proiektuen finantzaketan, ureztatzaile elkarteek gutxieneko ekarpen bat egin beharko dute, eta ekarpen hori ezingo da izan lehentasunaren arabera dagokion ehuneko baina txikiagoa edo hitzarmenean ezarritako ehuneko baina txikiagoa, eta, bestalde, hitzarmenean zehaztuko da Arabako Foru Aldundiari dagokion parte hartze ekonomikoaren ehuneko baina txikiagoa, bat etorritik laguntza onartu den deialdian dagokion laguntza ehunekoarekin.

6. artikulua. Proiektuak egitea

6.1 Laborantza ureztapena modernizatu, finkatu eta hobetzeko obren proiektuak Arabako Foru Aldundiak nahiz ureztatzaile elkarteak egin ditzake, eta bai ere zuzendaritza eta koordinazioko eta laguntza teknikoko beste batzuk. Lan horien kontratazioa ureztatzaileen elkarteek egingo dute eta Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legean eta Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 22. artikuluan xedatutakoaren arabera egin beharko da.

6.2 Toki Araubidearen arloan indarrean diren lege xedapenen testu bateginak 88. artikuluan dioenez (781/1986 Legegintzako Errege Dekretu apirilaren 18koak onartua), obrak tokiko obratzaletatik joko dira haien onuradunak ureztatzaile elkarteak direnean.

7. artikulua.- Diruz lagun daitezkeen gastuak eta diruz lagundu ezin direnak.

7.1 Honako hauek diruz lagundu ahal izango dira:

7.1.1 Ureztatze sistema modernizatu, finkatu edo hobetzeko behar diren gastuak, horien barnean direlarik ondasunak eta eskubideak desjabetzeko eta behar diren proiektu eta azterlanak egiteko kostuak, eta larrialdietako eta ustiapeneko planak prestatu, ezarri eta mantentzeko kostu guztiak.

7.1.2 Proiektuak nahiz segurtasun eta osasun azterlanak idaztea, edo segurtasun eta osasunari buruzko oinarritzko azterlana, edo, hala balegokio, proiektua definitzen duen eta beharrezkoa den azterlan oro, edo obra zuzendaritza, segurtasunaren eta osasunaren koordinazioa nahiz laguntza teknikoak, baldin Nekazaritza Sailak lan horiek gauzatzeko langile teknikorik eduki ez eta beharrezkoak badira.

7.1.3 Ureztatzeko urmael eta biltegiz hornitzea eta/edo haiek hobetzea.

7.1.4 Ponpaketa, garraio eta banaketa sistemez hornitzea eta/edo haiek hobetzea.

7.1.5 Azpiegiturarekin lotutako ekipoak eta instalazioak, hala nola:

7.1.5.1 Azpiegitura hidrauliko berriak nahiz lehendik zirenak doitu eta kontrolatzeko ekipoak eta haiek hobetzeko inbertsioak. (Kontagailuak, automatikak, telekontrola, presio doitzailak...)

7.1.5.2 Komunikazio teknologiarik ezartzea, energia kontsumoa eta eraginkortasuna kontrolatu eta hobetzeko.

7.1.6 Uraren kudeaketa eta beharrezkoak diren ekipoak hobetzeko inbertsioetarako gastuak.



7.1.7 Azterlan eta dokumentu teknikoak idaztea eta ordainsariak.

7.1.8 Balio Erantsiaren gaineko Zerga diruz lagundu daitekeen gastua da, onuradunak ordaintzen duenean. Berreskuratu edo konpentsatu ahal bada, inola ere ez da joko diruz lagundu daitekeen gastutzat.

7.2 Hauek ez dira diruz lagunduko:

7.2.1 Norberaren lanak.

7.2.2 Ureztatzaileen elkartean inskribatutako finketan edo ureztaketan sartuta egon gabe zona horretako ureztatzaileen elkarteari finken ekarpena egin dieten jabeen finketan aldi baterako okupazioa edo akueduktu-zortasunak eratzea dela-eta eragindako gastuak, . Hasiera batean sartuta ez dauden finkak geroago erkidegoari ekartzen dizkioten jabeek, hala badagokio, Arabako Foru Aldundiari itzuli beharko diote aldi baterako okupazioagatik edo zortasunak eratzeagatik jaso duten zenbatekoa.

7.2.3 Lurzati mailako ureztatze-instalazioetarako inbertsioak, “Nekazaritza ustiatagietako inbertsioetarako laguntzak” izeneko laguntza lerroaren bitartez diruz lagundu ahal izango dira.

7.2.4 Obrak gauzatzeak soroetan eragindako kalteetarako zenbatekoak.

7.2.5 Jardun berbera, 7 urteko epean, laguntza bat esleitzen denetik kontatzen hasita, salbu eta hondamendi naturalek eragindako kalteak edo ekintza basatien eta/edo gertaera ezohikoen ondorioz ureztapen elementuak berriro jarri beharrenden ondoriozkoak badira; kasu horretarako, ordea, behar bezala egiaztatu behar da egoera, eta aseguru poliza egoki bat eduki behar da, gertaera izan den unean indarrean dagoena, eta aseguruak dagokion heinean ordaintzen duen zenbatekoaren osagarri gisa bakarrik emango da dirulaguntza.

7.2.6 Halaber, 1.500 euro baino gutxiagoko inbertsioak.

8. artikulua. Kostuen moderazioa

Aurrekontu kostuei eustearren eta merkatu prezioei egokitzearren, proiektuak herri administrazioen kontratuen legearen peko prozeduren arabera gauzatuko dira. Kontratu txikiak baldin badira, oro har, 2 aurrekontu aurrezte behar dira, eta ureztatzaile elkarte onuradunak baloratu eta onetsi beharko ditu.

9. artikulua. Obren kontratazioa

9.1 Ureztatzaile elkarte onuradunek Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legean eta Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 22. artikuluan xedatutakoaren arabera egin behar dute obren kontratazioa. Kontratu txikia baldin bada, nahikoa izango da prozedura horri jarraitu zaiola jakinaraztea lehenengo ziurtapena egin aurreko edozein momentutan, eta gutxienez 2 eskaintza eranstea, ezinezkoa dela egiaztatu ezean.

9.2. Era berean, lehenengo ziurtapenaren aurretik, kontratazio espedientearen gainerako zatiaren kopia igorri beharko zaio Nekazaritza Sailari, bai behar bezala sinatutako kontratuaren kopia ere.

9.3 Esleipen prezioa merkatuz gero, Nekazaritza Sailak egokitu egingo du esleitutako dirulaguntza.

9.4 Dirulaguntzen zenbatekoa eskaintza ekonomikorik onargarrienaren arabera kalkulatu da.



10. artikulua.- Espedienteak aukeratzeko irizpideak.

10.1 Laguntza espedienteak aukeratzeko irizpideak taula honetan ezarritako baremoaren arabera puntuatuko dira, eskalari eta ezarritako helburuak lortzeko duten pisuaren arabera haztapenari jarraituz.

IRIZPIDEA	ESKALA	PUNTUAZIOA
Ura aurreztea edota ur erabileraren eraginkortasuna hobetzea.	< % 5	0
	% 5etik % 10era	2
	% 10etik 15era	5
	% 15etik 20ra	7
	% 20 baino gehiago:	10
	Azpiegitura berria	10
	Lehengoratuak uraren erabilerak	10
Azalera	Egiaztatu gabe 0 ha	0
	Oso txikia 1-50 ha	1
	Txikia 51-100 ha	3
	Bitartekoa 101-499 ha	5
	Handia 500-2000 ha	8
Oso handia > 2000	10	
Modernizatzearen/hobetzearen maila ureztatzailerakartean	Oso txikia	0
	Txikia	3
	Bitartekoa	5
	Handia	7
	Oso handia	10
Ingurumenerako ekarpena - helburuak	Ura udako sasotik kanpo hartzea = 4 puntu	0-10
	Energia garbia erabiltzea (grabitatea edo ordezkapena) edo presiozko ureztaketan energia-mendekotasuna murriztea = 4 puntu	
	Beste batzuk, justifikatu beharrekoak = 2 puntu	

10.2 Guztirako puntuazioaren emaitza haztatu egingo da formula honen arabera, (C delarik = irizpidea eta CP delarik = haztapan koefizientea), jardunak lehentasun talde ezberdinetan sartze aldera:

$$\text{Puntuazio osoa} = C1 \times CP1 + C2 \times CP2 + C3 \times CP3 + C4 \times CP4$$

10.3 Laguntzak emateko, honako lehentasun talde hauek ezartzen dira:

- 0 eta 10 puntu artean: 7. lehentasun taldea
- 11 eta 20 puntu artean: 6. lehentasun taldea
- 21 eta 24 puntu artean: 5. lehentasun taldea



- 25 eta 29 puntu artean: 4. lehenetasun taldea
- 30 eta 34 puntu artean: 3. lehenetasun taldea
- 35 eta 39 puntu artean: 2. lehenetasun taldea
- 40 eta 50 puntu artean: 1. lehenetasun taldea

11. artikulua. Laguntzen era, ehunekoa eta zenbatekoa

11.1 Laguntzak zuzeneko dirulaguntza bezala emango dira, jarraian adierazten diren jarduera hautagarriaren gastu onetsiaren gaineko ehunekoetan. Ehuneko horiek aldatu egiten dira aurreko 11. artikuluan ezarritako sailkapen-irizpideak aplikatuta lortutako guztizko puntuazioa sailkatzen den lehenetasun taldearen arabera, eta diruz laguntzeko modukotzat onetsitako inbertsio osoaren balioaren ehuneko 100era iritsi ahal da:

- 1. lehenetasun taldea: ehuneko 95
- 2. lehenetasun taldea: ehuneko 90
- 3. lehenetasun taldea: ehuneko 80
- 4. lehenetasun taldea: ehuneko 70
- 5. lehenetasun taldea: ehuneko 65
- 6. lehenetasun taldea: ehuneko 60
- 7. lehenetasun taldea: ehuneko 50

Ehuneko horiek % 5 gehituko dira dirulaguntza ezohiko edo muturreko gertakari naturalek kalte egindako azpiegiturak konpontzeko baldin bada.

11.2 Eskatutako jardun bakoitza sailkatu egingo da dagokion taldean, bereiz, halako moldez non, lehenbizi, analizatu egingo diren eta, gero, taldeka sailkatu aurkeztutako eskabideen artean lehenengo lekuetan daudenak; ondoren, kreditu baliagarriak balego, gainerako jardunak analizatu eta sailkatuko dira.

11.3 Talde bakoitzak lehenetasuna izango du hurrengoaren aurretik. Erreserbatutako kreditua talde batean agortzen bada, talde bereko eta hurrengoetako gainerako eskabideei ezezkoa emango zaie.

11.4 Kreditu baliagarria agortzen duen azken lehenetasun taldeari dagozkion laguntzak esleitzeko, puntuazio handienetik txikienerako hurrenkerari jarraituko zaio, eta berdinketa gertatuz gero, lehenetasuna emango zaio inbertsio txikienerari inbertsio handienaren aurretik.

11.5 Dirulaguntza osagarria eman ahal izango zaie, beste administrazio publikoak ematen duenaz gainera, legez interes orokorrekoak edo lurraldearen interesekoak deklaratuak izanik administrazio publikoren baten laguntza jasotzen duten eremuetan ureztatze-obrak edo jardunak egiteko inbertsioei, jasotako guztizko laguntza foru dekretu honetako 11.1 artikuluan ezarritako zenbatekora iritsi arte.

12. artikulua. Eskabideak aurkezteko epea, modua eta lekua

12.1 Urtero onartuko da laguntzen deialdia, eta honako hauek jasoko ditu:

- Eskaerak aurkezteko epea eta lekua.
- Deialdia ebazteko erreserbatzen diren kredituak.
- Haztatze koefizienteak, foru dekretu honen 10. artikuluan espedienteak aukeratzeko ezarritako irizpideei aplikatu ahal zaizkienak.

12.2 Laguntza eskaerak inprimaki normalizatuan egingo dira eta haiekin batera ondoko agiri hauek aurkeztu beharko dira:



- Erakunde eskatzailearen IFZ eta haren legezko ordezkariaren NANA.
- Ureztatzaile elkarteak laguntza eskatzeko eta ordezkaria izendatzeko hartu duen erabakiaren ziurtagiria.
- Ur masei eragiten zaienean, uren kontzesio titulua edo erregistro erreferentzia edo dagokion Konfederazio Hidrografikoko Plangintza Bulegoaren txostena, honako hau egiaztatzen duena:
 - Eragiketa ur-emakida baten babespean dagoela.
 - Eragindako ur-masak, haien egoera (egungoa eta/edo potentziala) eta erauzketengatik presioa duten ala ez, indarrean dagoen karakterizazio hidrografikoaren arabera.
 - Eragiketa bat datorrela indarrean dagoen Plan Hidrologikoaren helburuekin, esleipenekin, erreserbekin eta gainerako zehaztapenekin, eta eragiketa gauzatzeak ez duela arriskuan jartzen gainerako erabileren ur-horniduraren bermea, ez eta emari ekologikoen mantentzea ere.
- Teknikari eskudunak egindako obra-proiektua edo memoria tekniko-ekonomikoa, salbu eta jarduketaren bakuntasunagatik beharrezkoa ez denean, betiere eskabide-orrian behar bezala definituta geratzen bada; kasu horretan, nahikoa izango da 2 aurrekontu aurkeztea. Memoriak, gutxienez, honako hauek jaso beharko ditu:
 - Proiektuaren kokalekua eta ureztatzaile elkartearen ezaugarrien deskribapen orokorra.
 - Sustatzailearen identifikazioa.
 - Gauzatu beharreko ekintza zehatzen azalpen xehatua: inbertsioen deskripzioa, kontzeptuen xehetasunak eta laguntza zertarako eskatzen den.
 - Helburuak eta inbertsioarekin aurreikusten diren onurak.
 - Uraren aurrezpenari eta/edo haren erabileraren eraginkortasuna hobetzeari dagozkion alderdiak, lehendik zeuden azpiegiturei eragiten dienean (ez da beharrezkoa urtegiak sortzeko, eraginkortasun energetikoa hobetzeko jardunetarako, azpiegitura berrietarako edo ur andeatuen erabileararako).
 - Ingurumenerako ekarpena (urak hartzeko garaia, energia-kontsumoekin lotutako alderdiak, beste alderdi garrantzitsu batzuk).
 - Aurreikusitako obren programazioa.
 - Neurketak eta aurrekontu zehatza.

Kudeaketaren arduraren agintaritzak erabakiko du proiektua bideragarria den edo ez, aurkeztutako agirien azterketaren arabera. Datu gehiago behar dituela uste badu, eskatu egingo ditu.

- Jarduketaren arabera eskatzen diren beste batzuk: ingurumen prozeduren dokumentazioa, Konfederazioaren ziurtagiriak edo beste batzuk.
- “Azalera” izeneko balorazio irizpidea dela-eta, eremuren baten azalera kontuan hartzea nahi duten ureztatzaile elkarteek ziurtagiri bat aurkeztu beharko dute gaur egun ureztatzaileen elkartean sartuta dauden nekazaritza-erabilerako lurzatiei buruz. Zerrenda horretan jasoko dira udalerria, poligonoa, partzela eta egungo katastro-identifikazioan (edo SIGPACen) oinarrituta kontuan hartu beharreko azalera.

12.3 Baimena eman ahal izango da laguntzaren xede den hobekuntza, inbertsioa edo jarduketa hasteko, berriaz hala eskatzen bada, laguntzarako eskaera aurkeztu baino lehen, oraindik ez delako hasi eskaerak aurkezteko epe ofiziala, edo, epe hori hasita, deialdia ebatzi baino lehen. Arrazoiak justifikatu beharko dira.



12.4 Aurretiaz hasteko baimena Nekazaritza Garapenerako Zerbitzuak emango du idatziz, baina baimen horretatik ez da automatikoki ondorioztatzen laguntza ematearen aldeko ebazpenik.

12.5 Deialdi bakoitzean eskabide bakarra aurkez daiteke.

12.6 Eskaeretan akatsak badaude edo osorik ez badaude, instrukzio organoak haiek konpontzeko eskatuko die interesdunei. 10 laneguneko epea izango dute horretarako, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik kontatzen hasita. Epe hori igarotakoan akatsak zuzendu ez badira, eskaerari uko egin zaiola ulertuko da, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 68. artikuluan xedatutakoari jarraituz.

12.7 Laguntza eskatzeak berekin dakar organo kudeatzaileari baimena ematea beharrezkoak diren ziurtagiriak eta informazioa eska diezazkien Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiari eta Arabako Foru Aldundiaren Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailari, espedientea ebazteko helburuaz. Baimenik eman ezean, aurreko ziurtagiriak aurkeztu beharko dituzte.

12.8 Eskabidea aurkeztuz gero, eskatzaileak berariaz onartuko ditu laguntzaren oinarri arautzaileetan ezarritako betebeharrak eta konpromisoak.

13. artikulua. Izapidetzea

13.1 Eskaerak aurkezteko epealdia amaituta, espedienteak Nekazaritza Garapenerako Zerbitzuak izapidetuko ditu.

13.2 Espedientea instruitzen den bitartean, laguntzaren organo kudeatzaileak behar dituen argibide eta agiri gehigarriak eskatu ahalko ditu, ebazpen proposamena egiteko xedearekin beharrezko diren datuak zehaztu eta egiaztatzeko. Interesdunak ez badu ezer egiten izapide hori betetzeko, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 73. artikuluan xedatutakoa beteko da.

13.3 Foru dekretu honetan ezarritako laguntzak lehia bidez esleituko dira, foru dekretu honetako 10. artikuluan ezarritako aukeratze-irizpideen arabera. Baldin ez badago kreditu nahikorik betekizunak betetzen dituzten espediente guztiei laguntzak emateko, honela jokatuko da:

Lehenengo ebazpena emango da, eta bertan sartuko dira ezezkua jaso duten espedienteak eta baiezkua jaso duten espedienteak, gordetako kreditua agortu arte, aukeratze-irizpideak ezarri ondoren atera den lehentasun ordenari jarraituz. Baiezkua jaso duten gainerako espedienteak erreserban geratuko dira. Kreditua handitu bada, bigarren ebazpen bat egingo da, eta aurretik ezarritako lehentasun ordenari jarraituz emango zaie laguntza hala dagokien espedientei eta gainerakoei ukatu egingo zaie laguntza kreditu faltagatik.

13.4 Behin espedienteak aztertu ondoren, kide anitzeko balorazio organoak txostena prestatuko du, ezarritako lehentasunen arabera irizpideak aplikatuz eta aurrekontu baliagarritasuna kontuan hartuz egindako ebaluzioaren emaitza zehazturik. Orobat, hala badagokio, zehaztuko ditu espediente bakoitza ezesteko arrazoiak eta azalduko du baietsitako espedienteek beharkizunak betetzen dituztela.

13.5 Laguntzak emateko kide anitzeko balorazio organoa honako hauek osatuko dute:

- Nekazaritza Garapenerako Zerbitzuaren burua edo hark eskuordetzen duena.
- Landa Azpiegiturako eta Ureztatzaileen Bulegoko Ataleko teknikari bat, Nekazaritza Garapenerako Zerbitzu horri atxikia.
- Nekazaritzako Idazkaritza Teknikoko Zerbitzuaren burua.

Ezinezkoa denean izan ezik, emakumeen ordezkaritza orekatua izango da balorazio organoan.



14. artikulua. Ebazpena eta jakinarazpena

14.1 Kide anitzeko balorazio organoaren proposamenez, Arabako Foru Aldundiko organo egokiak ebaztiko ditu espedienteak indarrean dagoen legeriari jarraiki, eta horien ebazpenak amaiera emango dio administrazio bideari. Dena dela, administrazioaren aurkako auzi-errekurtsoa jarri ahal da administrazio bidearen aurka Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren aurrean, errekurtsio mota hori arautzen duen araudiari jarraiki, aukerako berraztertze errekurtsioa jartzeko aukerari kalterik egin gabe.

14.2 Urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 21. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako, gehienez sei hilabeteko epea izango da prozeduraren ebazpena eman eta jakinarazteko, eskaerak aurkezteko epea bukatzen denetik aurrera. Epe hori igarotakoan esanbidezko ebazpena eman eta jakinarazi ez baldin bada, administrazioaren isiltasuna ezestekoa izan dela ulertuko da, Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzen urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauaren 23.5. artikuluari jarraituz.

14.3 Laguntzak esleitzeko ebazpenak honako hauek zehaztu beharko ditu espediente bakoitzeko: esleitutako dirulaguntzaren ehunekoak eta zenbatekoak, laguntza edo diruz lagundutako gastua zer inbertsio edo jardunetarako eman den, haren finantzaketaren jatorria, inbertsioa gauzatzeko eta betearazpen urte bakoitzean ordainketa eskaera aurkezteko epea; eta hala badagokio, laguntza ukatzeko arrazoia.

14.4 Laguntzaren ebazpena banaka jakinaraziko da eta, ere berean, honako informazio hau guztia ere adieraziko da jakinarazpenean: emandako dirulaguntzaren zenbatekoa, ehunekoa, diruz laguntzen den inbertsioa, diruz lagundutako inbertsioaren gastua, gauzatzeko epea eta urtekoak eta, hala badagokio, laguntza ezesteko arrazoia.

14.5 Europako funtsak ere erabiliz finantzatzen bada, jakinarazpenean adierazi beharko da Europar Batasunak parte hartzen duela finantzaketan; hala, Europar Batasuneko kasuan kasuko funtsak emandako laguntzaren zenbatekoa edo ehunekoa adieraziko da, baita finantzaketan parte hartzen duten gainerako erakundeek emandakoa ere.

14.6 Horrez gainera, ezarritako baldintzak eta dirulaguntzaren onuradunak bete beharreko konpromisoak adieraziko dira.

15. artikulua. Laguntzak ordaintzea

15.1 Laguntzak ordainduko dira diruz lagundutako jardunak gauzatu ondoren, eta, ordainduko badira, agiri hauek aurkeztu beharko dira aurretik:

- Laguntza ordaintzeko eskaera, Erregistro Orokorrean aurkeztua.
- Egindako gastuen justifikazioa, faktura eta ordainagiria aurkeztuta. Faktura elektronikoa izan ahal da, baldin eta Arabako Lurralde Historikoko zerga eremuan faktura hori onartzeko eskatzen diren baldintzak betetzen baditu.
- Erantzukizunpeko adierazpena, dokumentuak egiazkoak direla, bai eta beste diru-sarrera batzuk ere.
- Gauzatutako obraren ziurtagiria.

Ziurtagiri partzialen gaineko ordainketak egin ahal izango dira, eta onuradunak nahitaez amaitu beharko du diruz lagundutako obra. Ordainketa partzial horiek egiteko, beharrezkoa izango da gauzatutako obra-



bolumena egiaztatzen duen ziurtagiri teknikoak izatea eta obra-bolumen horri dagokion faktura aurkeztea, bai eta ordaindu izana hurrengo apartatueta adierazitako moduan egiaztatzea ere.

- Aldez aurretik bidali ez bada, diruz lagundutako jarduketak lizitzatzeko jarraitu den kontratazio espedientetik bildatzeko falta diren agirien kopia, kontratista adjudikaziodunarekin izenpetutako kontratua barne.

Nolanahi ere, 1.000,00 euro edo gehiagoko gastuak edo lege ezartzen den zenbatekoa banku transferentzia bidez edo bestelako banku agiri baten bidez egiaztatatu beharko dira.

15.2 Laguntzaren baten ordainketa urteko bat baino gehiagotan zatituta behar bada, aurreikusitako urteetan ordainduko da, laguntzarako dirua izendatu zen aurrekontuaren kontura. Nolanahi ere, azken urtekoa edo ziurtagiria ordaintzeko, inbertsioa guztiz gauzatu egon beharko da.

15.3 Foru dekretu honetan aurreikusitako laguntzak hiru urteotan ordaindu ahal izango dira, konpromiso krediturik egonez gero eta aurrekontu baldintzek hala eskatzen badute.

15.4 Dekretu honetan ezarritako laguntzen onuradun direnek kobratzeko eskubideak laga ahal dizkiete kontratista esleipendunei edo hornitzaileei, eta, hala, haiek zuzenean jasoko dute ordainketa bakoitzari dagokion dirulaguntzaren zenbatekoa.

15.5 Obren onarpena, amaierako ziurtagiriaren eta likidazioa egiten direnean Nekazaritza Saileko teknikariak aurrean egongo dira eta oniritzia emango dute. Benetan zein obra egin den egiaztatuko dute, emandako dirulaguntzaren ordainketari begira.

16. artikulua. Onuradunen betebeharrak

Foru dekretu honetan jasotako dirulaguntzak jasotzen dituzten erakundeek honako betebeharrak izango dituzte:

16.1 Emandako diru laguntza onartzea eta eman zaion erabilera zehatzerako baliatzea, laguntzak esleitzeko ebazpenean ezarritako baldintzen arabera. Laguntzaren esleipenaren jakinarazpena jasotzen duenetik hamar egun balioduneko epean onuradunak ez badio dirulaguntzari berariaz eta idatziz uko egiten, onartu egin duela ulertuko da.

16.2 Diruz lagundutako inbertsioak edo jardunak gauzatea dirulaguntzak esleitzeko ebazpenean aurreikusitako epearen barruan..

16.3 Erabiltzeko egoera onean eduki behar ditu inbertsioak, dirulaguntza ematen denetik 7 urteko epe batean gutxienez, ezinbestekorik gertatu ezean.

16.4 Arabako Foru Aldundiaren Nekazaritza Sailari eta Ogasun Sailari, Kontuen Euskal Epaitegiari eta Europar Batasunaren organo eskudunei beren eginkizunak gauzatzeko foru dekretu honen babesean jasotako laguntzari buruz eskatzen dioten informazioa ematea.

16.5 Administrazio kontrolak eta tokian bertako kontrolak igarotzea laguntza behar bezala esleitu eta garatu dela eta inbertsio edo jardun diruz lagunduak behar bezala gauzatzen direla eta osteko konpromisoari eusten zaiela egiaztatzeko.

16.6 Jasotako funtsak zertan erabili diren egiaztatzen duten agiriak gordetzea, agiri elektronikoak barne, horiek guztiak egiaztatuta eta kontrolatu baitaitezke.



16.7 Indarrean diren legeek obrak gauzatzeko eskatzen dituzten administrazio baimenak eskuratzea, bai eta administrazio eskudunak eskatutako baldintzak betetzea ere.

16.8 Erakundearen bere teknikariak jartzen baditu obrak zuzentzen, horren berri ematea Nekazaritza Sailari, eta zuinketa egiaztatze edo obrak hasteko akta zein egunetan egingo den jakinaraztea.

17. artikulua. Ez-betetzeak

17.1 Onuradunak honako foru dekretu honetan eta laguntza emateko ebazpenean ezarritako betebeharrak eta konpromisoak bete ezean, edo laguntza eskuratuz gero horretarako beharrezkoak diren betekizun guztiak bete gabe, emandako dirulaguntza jasotzeko eskubidea galduko du eta, hala badagokio, jasotako zenbatekoak itzuli beharko dizkio Arabako Foru Aldundiko Ogasunari, bai eta legezko interesari dagokien zenbatekoa ere, eta laguntza bera edo geroko ordainketetan jaso beharreko zenbatekoak gutxituko zaizkio, Arabako Lurralde Historikoko dirulaguntzen urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak ezarritakoari jarraiki bidezkoak diren egintzei kalterik egin gabe.

17.2 Foru dekretu honen 4.2.2. artikuluan ezarritakoak bete ezean, galdu egingo da eskatu zen jardunerako dirulaguntza eskuratzeko eskubidea.

17.3 Foru dekretu honen 17.3 artikuluan ezarritako konpromisoa bete ezean, jasotako diru zenbatekoak itzuli egin beharko zaizkio Arabako Foru Aldundiari, bai eta aplikatzeak diren legezko interesak ere.

17.4 Lan edo jardun diruz lagunduak dirulaguntzak esleitzeko ebazpenean ezarritako epean gauzatu ezean, edo onartutako inbertsioaren zenbatekoaren ehuneko 50 baino gutxiago baizik gauzatu ez bada Nekazaritzak ontzat emandako justifikaziorik gabe, galdu egingo da dirulaguntzarako eskubidea.. Horrez gainera, ezingo da eskatu laguntzarik inbertsio horietarako beretarako lan edo jardun hori gauzatu behar zen deialdiaren osteko bi deialdietan.

17.5 Itzultzen diren zenbatekoak zuzenbide publikoko diru sarrera izango dira, legezko ondorioetarako.

17.6 Nekazaritza Sailak erabakiko du foru agindu bidez dirulaguntza osorik edo haren zati bat itzuli behar den, ikuskatze edo kontrol txostena eta itzultzeko proposamena ikusi eta onuradunari entzun ondoren.

17.7 Dirulaguntza osoa edo zati bat itzultzeko prozeduraz gainera, Arabako Lurralde Historikoko dirulaguntzen urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak ezarritako arau hausteen ziozko zehapen prozedura abiarazi ahal da.

18. artikulua.- Araubide juridikoa

Foru dekretu honetan adierazitako dirulaguntzen onuradunak Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzei buruzko urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauan, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean, uztailearen 21eko 887/2006 Errege Dekretuak hura aplikatzeko onetsi zuen Erregelamenduan eta Europako, estatuko eta autonomia erkidegoko arau aplikagarrietan xedatutakoaren mende egongo dira. Horiek horrela, behartuta egongo dira Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak, Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde ordaintzaileak, Euskal Kontuen Epaitegiak edo eskumena duten organoek eskatzen dizkieten agiriak aurkeztera, halaxe xedatzen baitu aipatutako foru arauak 8 i) artikuluan.

19. artikulua.- Bateragarritasuna beste laguntza batzuekin

19.1 Dekretu honetan garatzen diren laguntzak bateraezinak izango dira beste erakunde publiko edo pribatu batzuek xede eta helburu beretarako emandako beste zeinahi diru laguntzarekin, salbu legez



interes orokorrekoetat edo lurralderako interesekoetat jotako guneetako ureztapen obra edo jardunetarako eman direnak, edo aurreikusten bada bateragarriak direla Europako Erkidegoetako araudian, estatuko araudian edo euskal autonomia erkidegoko araudian edo foru araudian.

19.2 Bateragarriak badira, laguntzen zenbatekoa, bakarka edo beste batzuekin batera, ezingo da izan diruz laguntzekoa den jardunaren kostuaren muga baino handiagoa eta, hala, Arabako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzko 11/2016 Foru Arauaren 18.3 artikuluan xedatutakoa aplikatuko da.

20. artikulua. Laguntzak berrikustea

Laguntzaren xedea betetzen bada, baina dirulaguntza emateko kontuan izandako baldintzak aldatzen badira, hura emateko ebazpena ere aldatu ahalko da.

21. artikulua. Finantzaketa

21.1 Laguntza hauetara bideratutako baliabide ekonomikoak Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Sailaren aurrekontu kredituetatik aterako dira.

21.2 Arabako Foru Aldundiaren Nekazaritza Sailak finantzazio gehigarria eman ahalko du, dirulaguntza hauetarako baliabide ekonomikoak handitzera zuzenduta; zenbateko gehigarri hori laguntza nazionaltzat hartuko da, Arabako Foru Aldundiaren aurrekontu kredituen kontura.

21.3 Arabako Foru Aldundiak laguntzaren zenbateko osoa ordainduko dio onuradunari.